



GEHIGARRI BEREZIA

Saritutako lanak

Ipuinak

1. saria: Kea dario Itxaspetik. *Elisabeth Huegun*
2. saria: Txuriak betetzen. *Arantzazu Otaegi*
3. saria: Osaba Joxeren sotoko kutxan. *Marisa Arruabarrena*

Olerkiak / Bertsoak

1. saria: Bertso eskolakoak. *Mikel Iruretagoiena*
 2. saria: Kamuts. *Kepa Maiz*
 3. saria: Egunerokoak. *Garazi Urretabizkaia*
- Accesita: Oporraldi desberdina. *Rosi Lazkano*
Accesita: Lehen eta orain. *Jokin Zumeta*

Kea darío Itxaspetik

Elisabeth Huegun

Beti izan zinen oso pertsona sakona. Hain sakona ezen inoiz inork ez baitzekien zer ari zinen pentsatzen. Askotan begiratu izan nizun zuzenean begietara, haien bestaldean zer gertatzen zen ikusi ahal izateko. Erantzunik ez. Irribarre bat, txantxa baten aurretik. Ez dakit zuk adinako erakarpen gaitasunik duen inor ezagutzera iritsi naizen. Indiferentziaz bestelako sentimenak sorrarazten zenizkion jendeari, zure ingurukoei bereziki. Baina inoiz inorekin sakoneraino iristea lortu gabe. Ez nekien nahita egiten ote zenuen, gustatu egiten zitzaizulako, edo pausuak aurrera emateak beldurra sortzen zizulako. Zeure horretan eroso sentitzen zinen, besteengandik seguru. Inoiz inork ezer txarrik egin zizunik ez zenidan kontatu.

Lagun onak ginen, beti distantzia berera zeuden lagun onak. Bion artean zegoen horma hori ez dakit zuk edo nik sortua zen, baina edonork eraikia izanik ere, kontua da besteak inoiz ez zuela hura botatzeko ezer egin. Kemena falta izan zitzaigun, agian. Edozeri buruz hitz egiteko gai ginen, gure sentimenduez izan ezik. Arraroa, ezta? Barneko sentimenak gorde egiten genizkion elkarri, batak bestearen egiak jakiteari beldurra geniolako. Edo egiak esateari beldurra geniolako, zer pentsatua ematea ekidin nahian. Ingurukoak engainatze horretan geure burua ere engainatu genuen. Eta, konturatu nintzeneko, jada beranduegi zen.

Herritik joan nintzenetik ez dugu elkar ikusi eta, berriz ere, beranduegi iritsi naiz. Mariak hil zinela kontatu zidanean, azken 50 urteetan inoiz sentitu gabeko herrimina sartu zitzaidan, bost hamarkada luzez ahazturik izan nuen herria berriz ere deika ariko balitzait bezala. Eta hementxe nago gaur.

Akordatzen zara nola egoten ginen udaberriko arrats gorrietan, Itxaspeko enbor okertu haien guztien azpian? Ortzmugari begiratzen genion, itsasoak eta zeruak elkar ukitzen zuten tokiari, amaierarik eta hasierarik gabeko tokiari. Zigarroak erretzen ere han erakutsi zenidan, nerabazaroko joko tentel horietako bat besterik ez bailitzan; izan ere, eta egia esateko, niri ez zitzaidan sekula gustatu. Hala ere, bizioak ez zuen atzera bueltarik izan. Bilobek askotan esaten zidaten uzteko, eta nik baietz erantzuten nien, egunen batean utziko nuela,

baina esandakoak inoiz sinetsi gabe, nire baitan bai bainekien erabat konbentziturik hartu beharreko erabakia zela, oraindik iritsi ez dena. Eurek ez dakite, ordea, bakardadean erretako zigarro bakoitzarekin zure presentziak estali izan nauela urte guztiotan, ezpainetara daramadan hori zigarroa ez eta zu zerorri bazina bezala. Egunerori zuri eskainitako bost minutuko trantze moduko bat bizi izan dudala, eta trantze horrek pozik bizitzeko adina indar eman didala. A, ze paradoxa, ezta? bizitza kentzen duenak bizitza ematea.

Esan behar dizut gauero zigarro bat erretzera ateratzen nintzela komuneko leihora eta, ilargiari begiratzean, zuk ere ilargi hori berori ikusten zenuela jakiteak asetzen ninduela. Hitz egiten nion ilargiari, zuri esan nahi nizkizun kontuak hari kontatuz, ilargiaren islak hitz haiek zuri igorriko zizkizulakoan. Behin, bitan, hirutan eta lautan aita izan nintzela kontatzen hasi nintzaizun lehenik, eta hamalau aldiz aitona izan nintzela ere jakinarazi nizun. Egunerokotasuneko kontu txiki eta handiez hitz egiten nizun. Beldurra ematen zidan nitaz ahaztuko zinela pentsatze hutsak. Espero dut ilargiak bere lana egingo zuela. Niri ez zidan inoiz hitzik ekarri.

Arreba Mariak esan zidan ezkondu egin zinela, ez naiz gogoratzen norekin. Interesatu ez zaizkion datuak ahazteko joera eduki izan du beti nire buruak. Zure seme gazteenak nire izena daramala ere jakin nuen: Joanes. Hori ere Mariak esan zidan. Badakizu zer? Nire seme bakarrari Maximo deitu nion, zure omenez, zuk ere gauza bera egingo zenuenaren esperantzan.

Beti pentsatu izan dut Mariak nire sentimenduak igarri zituela, herriko kontuak aipatzean zuri buruzkoak baino ez zizkidalako kontatzen. Baliteke ni neroni konturatu aurretik berak jada jakin izatea zurekiko zer sentitzen nuen. Hala ere, inoiz ez dugu horri buruz hitzik egin, eta eskertzen diot. Hil zinela ere haren gutun bati esker (edo erruz) jakin nuen.

Zail da esplikatzeko barruan geratu zaidan hutsunea. Idahora ihes egin nuenetik ez genuen elkar ikusi, eta elkarrekin harremanik ere ez dugu izan; beraz, ezin esan dezaket gertuko norbait galdu dudunik, fisikoki aspaldi utzi baikenion elkarrengandik gertu egoteari.

Hala ere, nik egunero hitz egiten nizun, entzungo zenidan esperantzaz. Orain baliteke, ilargiari begiratzen diodanean, zuzenean zuri hizketan aritzea, izarren batek zure izana jasoko duela ziur bainago. Baina ez da nahikoa, bizirik ez zaudela jakiteak sekulako zuloa sortu dit barrenean, oroitzapenek eta imajinazioak bete ezin izango duten zuloa. Mende erdiz egin ez dudan hori egiteko aukera behin betiko galdu dut, eta inoiz zu berriz ikusteko ezer egin ez banuen ere, ez nintzen konturatu noizbait beranduegi izan zitekeenik.

Zure errautsak Itxaspeko enborretan bota zituztela jakitean, urte hauetan guztietan bizi izandako esperantza esperantza hutsa baino zertxobait gehiago izan zela sentitu nuen. Txoko bat bilatu zenuela nitaz oroitzeko, egun triste baten ondoren enbor oker haien adarrek nire besoen pare besarkatzen zintuztela sentitzeko, eta behin bizitzeari utzitakoan, egunen batean nirekin elkartzeko, biok jakin baikenekien, inoiz bata bestearen bila joatekotan, Itxaspeko enborren azpian topatuko genuela elkar.

Oso bestelako herrira iritsi naiz. Hazi eta aldatu egin gara, ez dakit onerako edo txarrerako. Itxasperako bidea ere kosta zait ezagutzen. Behin iritsita, aldatzen ez diren gauzak badirela ere ikusi dut: mendia, larra, eukaliptoak eta, guztia biltzen, itsasoa. Udaberriko loreen eta kresalaren usaina nahikoa izan dira zertara etorri naizen gogoratzeko, baita etxean nagoela sentitzeko ere. Etxea beti da bakarra. Idahon familia sortu nuen, eta etxebizitza bat ere bai, baina bizitzaren zatirik handiena han igaro arren, beti jakin izan dut hura ez zela nire etxea. Atzera egiteko beldurrez, ordea, ez naiz

sekula itzuli, orain artean bizitako guztiaren zentzua kolokan jarriko nuen beldurrez. Beldurra oso gauza triste iruditu izan zait beti. Ezetza jasotzeko beldurrez atzera egiten dugu, saiatze ezak ematen digun babes faltsu horren baitan seguru sentiturik, baina ez gara konturatzen saiatze ezaren eta ezezkoa jasotzearen ondorioak berberak direla.

Ez dakit inoiz gauradina denboraz hitz egin dizudan. Itxaspeko zigarroa luzea izaten ari da. Berriz ere elkar topatu dugun sentazioa daukat, inoiz ahaztu ez bazaitut ere, oroitzapenetan eta imajinaziotik bizitzeari agur esan diodala.

Eta, bat-batean, bihotzean mina sentitu dut eta, jarraian, sekulako bakea sentitzen hasi naiz, nire jatorrira bueltatu izanaren jakitun, hementxe bertan lasai ederrean agur esan dezakedala. Kanpoan bizi izandako urte horiek guztiek ez dute garrantzirik, ez dute erakarpen indarrik. Familia da kezkatzen nauen bakarra, baina badakit aurrera egingo dutela. Indarrak ahituz doaz apurka-apurka, itsas brisa sentitzen dut azalean, eta pixkanaka sumatzen dut nire arima gorputzetik nola ateratzen ari den. Zigarroari azken kalada ematearekin bat, zigarro hautsak belarretara bota ditut, enbor okertu horietako baten ondora. Begiak itxi eta joaten utzi diot nire buruari. Zigarrokinaren inguruan bestelako errautsak daudela ikusi dut eta, azken arnasa hartzearekin bat, zure ondora etorri naizela jakin dut, besoak zabaldu eta besarkatu egin nauzula. 50 urtean lehenengo aldiz batera gaudela eta, oraingoan, betirako izango dela.

Txuriak betetzen

Arantzazu Otaegi

Hasierak gogorrak omen dira. Hala diote, behintzat. Orri txuriaren aurrean egoteak beldurra ematen omen du; ez duzulako heldulekurik, bide-seinalerik, nondik bideratu behar duzun adierazten dizun ezer.

Bizitzaren garai berri bat denean, beste horrenbeste. Ezaguna joan da, betiko erreferenteak desagertu... dena da txuri zure aurrean.

Baina orri txuriak nolabaiteko askatasuna ere ematen du. Izan ere, bide guztiak dira posible. Ezker, eskuin, gora, behera ala zeharka egin dezakezu, zure norabidea baldintzatzen duen ezer ez dagoelako.

Eta bizitzan? Berdin. Berriro hasteak askatasuna ematen dizu. Ohitura zaharrak ez izateak egunero nahi duzun hori ahal egitea ekartzen dizu. Uneoro erabakitze eskubidea eta beharra. Motxilarik gabe. Eta hori oso pertsona gutxi esan dezake.

Nire aurrean, halabeharrez, orri txuria eta bizitza berria aurkitzen ditut, herri txiki honetara etorri naizenetik. Eta onena biak elkartzea dela otu zait, orri txuria bizitza berriarekin osa dezaket eta. Izan ere, herria begi berri eta garbiekin behatzeak nahiko lehengai ematen du orri txuri bat edo beste betetzeko...

Adibidez, norbaitek azalduko al dit harrizko gurutze sendoa, mardula, garaia, zergatik dagoen aterpean? Zer dela eta eraiki zioten etxetxoa, teilatua eta guzti? Puskatuko delakoan? Euriak, kazkabarrak edo haizeak desegingo dutelakoan, igeltsuz egina balitz bezala?

Joxeren istorioa ere erabil dezaket txuria betetzeko, herriko tabernetan beti bakarrik egoten den gizonarena. Joxe deitzeko aurpegia du; beraz, niretzat Joxe da. Gizon isila, apala... itxuraz. Baina bere bakardadeak zerbait ezkututzen al du? Bestela, herriko gizonen kuadrillaren baten partaide litzateke. Baina ez. Bakarrik egoten da beti, eta ez du inorekin hitz egiten; ez tabernariekin, ezta beste mutilzaharrekin ere. Seguru zerbait krudela ezkututzen duela bere bizitzak. Eta, agian, herriko jendeak jakin badaki, eta herriak, igual, ez dio egindakoa barkatzen, urteak eta urteak pasa arren. Eta bakardade bakartienera kondenatu du, betiko. Ala ez...

Deigarria den beste kontu bat da herriko hainbat biztanlek duten gaitasuna hamaika lanbide desberdinetan aritzeko, edota hamaika leku desberdinetan egoteko. Esate baterako, postaria. Herriko baserriz baserri ikus dezakezu, gutunak eta hizketaldiak banatzen; gero, herriko posta bulegoan eta baita aldameneko tabernan ere; larunbatean, txirrindulari karrera antolatzen eta udaltzain lanetan; eta, amaitzeko, jaietako buruhandien konpartaren buru. Den-dena pertsona bera. Postaria, izenez.

Edo alkatea bera: alkate lanetan, trafiko antolatzaile, ezkontzak ospatzen, pilota partiden epaile eta tabernari aritu daiteke.

Magia egiten ote dute?

Kirola egiteko paseo berria ere istorio askoren lekuko eta iturburu izan daiteke. Edo da.

Neska ez hain gaztea korrika ari da uda sasoiko afari, merienda eta afari-merienden aztarnak gorputzetik ezabatzeko eta Gabonetako turroiari lekua egiteko. Itzuli bat ari da ematen.

Gaztetxo bikote berria. Paseoan herrikoen bistatik kanpo daudenean, elkarri ematen diote eskua. Etxe ingurura iristen direnean, eskuak banandu. Lotsa. Nerabeak. Gurasoek jakingo balute! Edo lagunek! Edo lagunen lagunek! Eskuak lotu, eskuak askatu. Lotu. Askatu.

Neska ez hain gaztea berriro. Bigarren itzulia.

Herriko mutilzahar kuadrillak kirola egitea erabaki du. Eta tabernaz taberna egindako zirkuitua nahikoa ez (herri honetan taberna guztiak hurbilegi baitaude) eta maratoia egitea otu zaie. Buelta beteko maratoia. Kilometro bateko maratoia.

Neska berriro. Hirugarren buelta. Korrika edo.

Eskolako neska-mutil txikiek irteera dute, ibilaldi luzea, abenturaz betea. Irakaslearekin batera, natura basatian murgiltzen dira, haren sekretuak deskubrituz: ardiak, zaldiak, astoak... Eta han, urrutian, mendian... Olentzero ikusi dute.

Nekatu egin da. Nahikoa. Neska.

Asmakizunetarako ere balio du herriak. Zein da herriko tokirik ederrena, inguru eta ikuspegi ikaragarriak

dituena? Ekialdea eta mendebaldea, iparra eta hegoa, menderatzen dituen lekua? Eliza? Ez. Udaletxea? Ez. Taberna edo jatetxeren bat? Landetxea? Frontoia? Parkea?... Ez, ez eta ez! Zein?... Hilerrria! Hilerrria, bai! Bejondeiela bertan bizi direnei!

Eta bigarrena? Kultur Etxeko liburutegia! Horrela, herriko gaztetxoak astakilo galantak aterako dira! Nola nahi dituzte irakurzaletasuna eta ikasketak bultzatu? Hor ez dago irakurtzerik. Ezin da kontzentratu! Liburuei begiratu beharrean, kanpora joaten zaizkizu-eta begiak!

Badaude pertsona bitxi eta kontu gehiago herritxo honetan. Eskolara sugegorria eramaten duen aguazil

jauna; arratsaldeko laurak bost gutxitan hilda eta laurak eta bostean lepo egoten den parkea; piroteknian aditua den gaztea (izan ere, jaietan suziriak, suziriak, suziriak eta suziriak botatzen aritzen baita egun guztia); ogia, ezti, babarrunak, panpinak, arrosa, jostailuak, gazta, txapelak, txerri hankak, txutxeak, pilotak, madalenak edota zerbeza saltzen dituen kafetegia; harakin berritsua (harakin guztiak bezala) edo txirrindulari eroentzat famatu bihurtu den horma...

Baina dagoeneko ez orria ez nire bizitza daude txuriak. Beraz, beste baterako utziko ditut.

Osaba Joxeren sotoko kutxan

Marisa Arruabarrena

Gure amatxik gordeta zituen zenbait idatzi aurkitzeak benetan harritu nau. Amak esanda, bagenekien hari idaztea gustatzen zitzaiola, baina herriko aldizkarirako eta horrelakoetarako baino ez zuela idazten uste genuen. Eta ez guk bakarrik, izeba-osabei ere galdegin diedanean, gauza bera esan didate. Herrian izan zen Karkara aldizkarirako idatzi zuela eta noiz edo behin egunkariren batera ere bidaliak zituela iritzi artikulu batzuk, baina ez besterik.

Atzo hondartzarako bidean Kaxildarekin egin nuen topo eta, presa handirik ez genuenez, ez berak eta ez nik, elkarrekin joango ginela erabaki genuen. Horrela, osabaren sotoko paretik pasatzerakoan, halaxe esan zidan; *Benetan izugarria izan zen zure amatxi zenaren bizkiaren kontua!* Ni zur eta lur geratu nintzen. Gure amatxik ba al zuen, bada, bizkirik? Garai hartakoaz mintzatu behar zitzaidan unean, Rufino egunonka hasi zitzaigun eta, arrantzaleak atunetarako prestatzen ari zirela esanez, gure solasaldiaren bideak beste norantz bat hartu zuen. Hondartzatik bueltan, mintza lagunak agurtu ondoren, satora sartzea pentsatu nuen. Ezin, ordea. Sotoko giltza nire anaiak zuen, ez dakit zer egin behar ziola bizikletari eta hurrengo astera arte berak izango zuela giltza. Horrela, bada, etxeratzearekin batera aitari galdetu nion ea amatxiren bizkiaren kontu horretaz zerbait ba ote zekien eta berak esan zidan aurreko astean emaginak familian bizkirik ba ote zegoen galdetu ziola izeba Eneritzi eta hark ezetz erantzun ziola. Beraz, gure izeba Eneritzek espero zituenak izango zirela familiako lehenak. Ama lanetik etortzeko zain egon nintzen, baina hurrengo goizean lanerako goiz jaiki behar nuenez, azkenean, bera ikusi gabe oheratu nintzen. Hurrengo egunetan kontuarekin guztiz ahaztu nintzen...

Moila gaina berriz ere txukundu behar zutela eta gure sotoa langileentzat aldagela gisa erabiltzerik ba ote zegoen galdezka etorri zitzaigun aurrekoan Txanka, herriko udaltzaina. Traste zaharrak jasotzeko baino ez

genuen lokalari garbitu ederra emateko garaia iritsi zitzaion. Beraz, Osaba Joxe zenaren sotoari beste erabilera bat eman behar geniola-eta hasi ginen balio ez zuen guztia sutarako ateratzen anaia eta biok. Garai bateko eskabetxeria aurreko San Juan Berdeko irabazleak izateko moduko traste zahar ugari! Haiek guztiak pilatu eta errez gero *kasasbaratasetakoak* inbidiatan utziko genituen; hori zen, behintzat, gure amak bere umetako garaiez hitz egiten zigunean beti aitazten zuen kontuetako bat: San Juan Berden surik handiena zeinek egin ibiltzen zirela, alegia. Haiek guztiak errez gero, txapeldun! Ba ziren, bada, lotarako lastairak, antxoetarako erabiltzen ziren egurrak, zalabardo zaharrak, mataputxak.... Haien guztien azpian zegoen egurrezko kutxak eman zigun atentzioa. Kanpotik ez zuen ezer berezirik. Egur ilunezko kutxa bat baino ez baitzen; baina barrenak esaten zidan, hala ere, barruko aldeak izango zuela sorpresa ederren bat. Esan eta izan! Tapa irekitzearekin batera paperez gainezka zegoela ikusi nuen. Kutxaren barruko aldea, berriz, oihal ederrez estalia zegoen; garai batean, baten batek txukun-txukun, iltze txiki-txikiez banaka-banaka iltzatutako belusezko oihal gorritzat. Iltze guztiak ilaran, batetik bestera beti tarte berdina utziz josita zeuden. Lan hori egindakoak, dudarik gabe, nik baino pazientzia handiago behar zuen! Eta han, nire aurrean, milaka paper. Batzuk ordenagailuz eta besteak eskuz idatzita. A, zer letra berezia! Egun ez da horrelakorik ikusten! Izan ere, ba al dago, bada, mundu osoan eskuz idazten duen inor? Beno, egun hartakoarekin jarraituz, hasieran pentsatu nuen gure amatxik garai bateko aldizkarirako-edo idatzitakoak izango zirela. Usteak erdia ustel, ordea! Eskuartearen genuena irakurtzeari ekin nion. Beste guztien gain-gainearen kartazal berezi baten barruan zegoen gutuna eta 2007ko martxoan idatzitakoa zen. Garai hartan urte betez amatxi Elgoibarko irakasle izan omen zen. Berari esker familian guztiz ahazturik genituen hainbat kontu berri zuzizkigu. Honela zioen:

Elgoibar, 2007ko martxoaren 30a.

Elgoibarko ikasleei, ikastetxe honetan urtero egiten den lez, ipuintxo bat idazteko gonbita luzatu diet : GAZ-T aisialdi taldeak antolaturiko "Idazmakinak 2007" DBHkoentzat lehen saria 175 eurokoa eta bigarrena, berriz, 120koa. Ez dago batere gaizki! A, zer gauza pila egin daitekeena hainbeste dirurekin!

Hasiera batean ez dira gehiegi animatu. Lan egin behar hori ez da hauen gustukoa. Ahal bada, esfortzu gutxienarekin errenta handiena lortu nahi izaten dute. Baina hor sartu naiz ni. Nola ezetz? Ba al dakizue zeinen erraz idatz ditzaitezuen bost orritxo horiek? Gainera, begira sariari! Bai horixe! Maiatzaren 4rako idatzi behar da. "Nire lagun onena galdu dut" duzue izenburua. Ikasleen esanetan, ordea, nabiko gai lazgarria.

Nik esan diet, askotan, 5-6 orritako luzerako ipuintxoak garatzeko, horrelako gaiak izaten direla egokienak eta, nahi izanez gero, datorren Aste Santuan idatz dezaketela eta, bueltakoan, aurkeztu aurretik, errepasso eder bat emango diegula! Horrela, lau edo bost orritxo banatu ditut; idatziko omen dute, saiatuko omen dira. Eta borretan utzi dugu kontua.

Ni, berriz, ez naiz hain lasai geratu. Une honetan bizitzen ari naizenagatik izango da, agian; baina ni bai motibatu nauela gai honek. Boligrafoa hartzearekin batera ekin diot idazteari. Ezin geldirik egon. Badirudi aspalditik nuela burmuinaren alde ezkuturen batean sartuta. Inolako planteamendurik egin gabe, bera bakar-bakarrik agertu zait. Nik egin behar izan dudana gauza bakarra izan da eskuari mugitzen uztea. Inguruan dudanaekin erabat abaztu naiz eta eman buelta orriari eta segi idazten. Pertsonaiak, tokia, gertaerak... Aurrez prestatutako trama balitz lez, ezin gelditurik jardun naiz. Badirudi benetan bizi izan dudala bertako guztia. Berrirakurtzeko astirik ere hartu gabe jarraitu dut, gutxienez bi ordutan. Idatzi eta idatzi. Pelikula bat ikusten ariko banintz bezalaxe izan da. Nire eskuak idazten zuen guztia pantaila handi batean izan dut. Eta ikusitako guztia idatzi behar eta ezinik ibili naiz. Eman eta eman, eskuak mantsoegi.

Bat-batean, errealtatea niregana bueltatu da. Orri zuri eta boligrafoaz gain, nire inguruan bestelakorik ere badela konturatu naiz. Eta, idazteaz gain, eguneroko ogia etxera eramateko beste gauza batzuk ere egin behar direlako, guztiz amaitu aurretik utzi behar izan dut.

Tartetxo bat dudala aprobeixatuz, atzo idatzi nuena berrirakurritako dut. Ezin bihar arte itxaron. Nola amaitzen den jakin behar dut. Gezurra badirudi ere, ezin esan dezaket

nola bukatuko den. Amaiera zein duen neronek ere ez dakit-eta. Izan ere, asmatu, ez dut asmatu behar. Istorio honetan ezer ez baitut nik asmatu, bera bakarrik gauzatu da. Nik egin dudana bakarra esandakoa idaztea izan da, besterik ez. Ea amaierarekin ere gauza bera gertatzen zaidan.

"Nire lagun onena galdu dut" GAZ-T aisialdi taldearentzat

Garratza da bizitza. Eta are garratzagoa atzotik. Zeinek esan behar zidan, elkarrekin hainbeste pasa ondoren, horrelako bukaera izango zenuenik? Ez dago eskubiderik! Txiki-txiki eginda nago. Zer egin behar dut nik orain zu gabe?

Azken bost hilabeteetan ez dut beste konturik izan. Etxekoek ere behin eta berriz esan didate nire jarrerara aldatu behar dudala. Horrela ezin dudala jarraitu...

Baina bakarrik utzi nauzu; isil-isilik joan zara, ezer esan gabe. Nola aldatuko nuen, bada, nire jarrerara, zu bazindoazela ikusirik?

Egia esan, konturatu naiz, aurreko urteetan elkarrekin pasa ditugun momentuetan pentsatzen jartzen naizen bakoitzean, irribarretxo bat sortzen dela nire ezpainetan. Zer izan zara, bada! Beti izan duzu txantxetarako tartea. Berdin zitzaizun unerik larriengan egotea; bilatuko zenion bai, hari ere grazia! Gogoratzen hasita, izugarria izan zen larunbat gau hartan gertatu zitzaiguna: azterketak bukatu genituela eta ospatzera irten ginen. Nola ez bada, horrelakoak ospatu beharra dago! Bada, Txokolatenean bokata bat afaldu ostean, beti egiten dugun moduan, tabernaz tabernarako poteoari ekin genion. Ez dakit ziur, nik uste laugarren tragoa-edo izango genuela. Oso gustura genbiltzala, behintzat, ondo gogoan dut. Bordatxora sartzera gindoazela, nire aurretik zinelarik, atean estropezu egin nuen. Beti bezala! Gezurra dirudi! Bizi guztia toki berberetan eta horrelako egunetan, dena jendez gainezka dagoenean, danba! kuadrillako baldarra lurrera! Baina, jakina, ez nintzen besterik gabe eroriko, ez horixe! Une larri hartan, edozeinek egingo zukeen moduan, aurrean nuenari beldu nion. Inoiz ez dut hain une txarrik pasa! Nire eskubiko eskuan, nondik atera zen ez banekien ere, zerbait gogorra sumatu nuen. Gogorra eta biguna era berean. Baita beroa ere! Hain tinko nuen utsirik, non bere jabeak bota zuen garrasiari, gure tabernako guztiez gain, aurrekoak ere begira jarri baitzitzaizkigun. Pentsa! Surfean aritzen den rubio horietakoa zen, eguzkiak arinki gorritutako azala, 1,80ko mutil katxalotea, marradun kamiseta, Levisak eta deportibo zuriak ... garrasika. Garrasi itogarria zintzurtean. Baina hori ez zen okerrean.

Haren azpian belauniko zegoena, ni. Nire eskua “bere” horretan. Denak guri begira... Gu postura horretan eta denak guri begira. Inoiz ez zait denbora hain astiro pasa. Segundo-milesimak ere ordu bilakatu zitzaizkidan. Kontxako estropadetako azken segundoak bezalaxe. Baina, beti bezala, hor zeunden, nire lagun kuttuna —nola ez bada?—. Zure ateraldi izugarrietakoa bota zenuen: “Aupa Miren, hori dun! Dagoeneko ez zaukanagu disimulatzen ibili beharrik! Argi zion, hik aukeratu dun hirea, orain utzigun gainontzekooi geurea aukeratzen!”

Bi kuadrillak algaraka hasi zineten eta inoizko gaua pasa genuen elkarrekin. Benetan animosoa Mutrikuko koadrila hura. “Nireak” Mikel izena zuen. Mila aldiz barkamena eskatu ondoren, lasai egoteko eta dantzari eta dantzari pasa genuen gau osoa... Zuk ere zureak egin zenituen. Ritxi izenekoa izan zen zure dantza laguna. Primerako mutil katxarroa...

Baina irribarrearen tartetxoa berebalakoan amaitzen zait. Zer egin behar dut nik orain zu gabe? Jaio ginenetik izan gara elkarrekin. Gure bi amak hala esan izan dute beti: “Hauek bizkiak baino okerragokoak ditun” Eta ez dute arrazoi faltarik. Ondo txikiak ginela, hartan oraindik Maria maistrarenera joaten ginela, zu gaixotu egin zinen. Ez naiz gogoratzen oso ondo zer izan zenuen, baina badakit zure amak nireari esan ziola sukarra zenuela eta egun batzuetan, behinik behin, ez zenuela haurtzaindegira joaterik izango. A, zer egun luzea egin zitzaidana! Ez neukan ezertarako gogorik. Leibo ondoko aulki luze hartantxe eseri nintzen goizeko hamarretan eta ama hamabi eta erdietan nire bila etorri arte egon nintzen bertan. Mugitzeko gogorik gabe. Hala esan zion Maria maistrak: Nik ez dakit zer duen, baina ume hau ez dago ondo. Ez da mugitu ere egin goiz osoan. Eta hori ez da normala. Esan eta izan. Etxera iritsi ginenerako, 38 gradutako kalentura neukan. Aste osoa pasatu genuen biok gaixorik. Baina hori ez da txarrena! Batak bestearekin nabi eta, azkenean, txandaka jardun ziren gure bi amak. Batean zure etxean pasatzen genuen egun osoa, obean isil-isilik eta kalenturari aurre egiten, eta burrungean, gurean. Orduz geroztik bixkien izengoitia izan dugu. Herriko hainbatek ez daki lagunak baino ez garelako; barkatu, “ginela”. Esango nuke herri erdiak baino gehiagok benetako bizkiak ginela pentsatzen duela, oraindik ere, eta ez da harriztekoa...

Baina eta orain zer egin behar dut nik zu gabe? Martxoak 30. Nire izatearen erdia desagertu egin da. Pluf! Eta begiak itxi ditu betirako. Ez ateraldi mundial gehiagorik, ez etorkizuneko planik, ez ezer...

Hainbeste gauza geratu zaizkigu egiteke! Karrera amaitu ondoren herrian bertan irekiko genuen gure txokotxoa. Horretarako, gurasoekin hitz eginda genuen maileguaren kontua. Lokala ez da hain handia; baina, ondo argiztatuz gero, handiagoa lirudike. Dirutxo horri esker, hileroko alokairua eta antolatze gastuei egingo genieke aurre eta diseinatzea besterik ez litzaiguke faltako. Hasieran, jakin bagenekien, ez zela erraza izango, baina merkatuaren azterketa eginda geneukan karrerako laugarren urtean eta argi zegoen funtzionatuko zigun zerbaitetan sartzera gindoazela... Orain, aldiz, hori guztia ezerezean geratu da. Joan zatzaizkit! Bakarrik utzi nauzu. Hitza eman zenidan gaixotasun beltz horri aurre egingo zeniola. Baina gure bizitzan, lehen aldiz, hitza jan duzu. Ez duzu esandakoa bete, eta bakarrik utzi nauzu... Bakarrik eta indarge, ahul, makal, odolik gabe...

Etxekoak saiatzen dira nire alde egiten. Beraiek aspaldi sumatu zuten zein zen benetako errealitatea eta niri argitzen saiatu izan dira behin baino gehiagotan: Jone, oso gaizki dago, bas zaitez txarrena pentsatzen. Ez da udaberrira ere iritsiko! Bai zera! Bere hitza eman dit! Lokala ia-ia lortu dugu eta uda honetarako martxan izango da...

Udaberria iristea lortu baduzu ere, gaitza gailendu zaizu eta emandako hitza... emandako hitza betetzerik ezin duzu izan. Nire lagun maitea, nire ahizpa, nire bixkia... joan egin zatzaizkit! Eta betirako, gainera! Adio zurekin batera egiteke genituen guztiak, adio Europako bidaiari, adio negozioa zabaltzeari, adio ama izatera inoiz iristen baginen gure umeei batera, nola bestela, erakutsi behar genizkienak antolatzeari. Hainbeste adio non, adio hitz berak ere ez duen jadanik esanahirik...

Tristerik nago lagun, triste. Atsekabeturik, bat arratsean zure hutsunearen presentzia agertu zaidanetik; bat-batean izatetik ez izatera pasa zarenean. Une horretantxe pertsonifikatu zait zure hutsunea. Komikietan heriotza irudikatzen dute horrela, baina nahasturik daude. Heriotza ez da ezer. Izatetik ez izatera pasatzea besterik ez da. Benetakoa, badena, hutsunea da. Hutsune anderea! Zuri-zuria! Hura aurreko aldean duzunean konturatzen zara hirugarren dimentsioaren benetako izateaz. Udako egun bero horietako batean, errepedean zoazenean urrutitik datozen autoek dakarten zurrumbiloaren antzekoa da, errepedeko galipotak botatzen duen ke horren antzekoa. Zure hutsunea nire malkoek dakarten zurrumbiloaren antzekoa da. Errepedeko galipotak botatzen duen ke horren antzekoa. Zure hutsunea, nire lagun maitea...

Eta orain zer egingo dut? Ez zaude nirekin. Inoiz gehiago ez zaitut nire ondoan izango. Akabo! C'est fini! Fini, beti-

betirako! Hutsunea, huts-hutsa...

*Malkoak begietan, tristura erraietan, ezina soinean.
Atsekabeturik, etsiturik, isilik.*

Bakarrik...

Zu gabe ez naiz ezer.

Irakurleari oharra:

Eskutitz hau 2039ko ekaineko San Juan Sutara, edo hemen esaten dugun bezala, San Juan Berdera, osabaren sototik erretzera eraman behar genituen zakarren artean zegoen egurrezko kutxaren barruan bilatu nuena da. Besterik gabe sutara botatzea ez zegoela ondo iruditu zitzaidan eta erre aurretik kopia bat egin nuen, badaezpada ere. Hau da esku artean duzuna. Jakin ezazu originala bai, erre nuela, hori baitzen bere egileak, nire amatxik, alegia, nahi zuena. Baina inon ez zioen berak idatzitakoaren kopia ezin egin zitekeenik eta, gure familiak ez ezik, herri osoak ere honen berri izan behar zuela pentsatu nuenez, lehendabiziko idatzian amaiera aldatzea egokiagoa zela pentsatu nuen. Baina

idatzitakoa berrirakurri ondoren, azkenean, berak eskutitz hari eginiko amaiera errespetatzea erabaki dut:

Nire lagun onena galdu dut. Joan egin zatzaizkit ondotik, betirako. Nire bizitzaren beste erdiari, adio! Ezina nitaz jabetu da. Bizitzerik ba ote nire erdi borren faltan?

Oraingoz, behintzat, nire idatzi hau inork aurkitzerik nahi ez dudanez, anaia Joxeren sotoko kutxan jasoko dut. Hori bai, inoiz norbaitek aurkituko balu, mesedez, erre dezala San Juan Berden, ni ez bainaiz ausartzen.

Garai batean hala esan omen zion gure amatxik amari: *Mirenek jakingo du inork baino hobeto gure arbasoen kutxa hau zaintzen eta erabilera egokia ematen. Bere garaian, gure ama zenak, arreo moduan Ezkurratik etorri nintzenean, oparitutakoa da eta, ni falta naizenean, zure alaba zaharrenak eraman dezala berera.*

Zergatik ote?

Miren Elizalde

Bertso eskolakoak

Mikel Iruretagoiena

1

Asko aspertzen nintzelako
egun guztia etxen,
egun batez bertso eskolan
apuntatu egin nintzen.
Aspalditikan nenbilen ni
bertsoak segitzen,
orain hasi nahi nuen
neronek probatzen,
neuronek astintzen,
pixkana hobetzen,
bi eskuak atzen,
kantatu nahi, ozen.
Ordutikan dexente
ari naiz sufritzen.

2

Astean behin elkartzen gera
bertsotako kuadrilla,
Kosta tailerreko lokalen,
inspirazio bila.
Zutikan aurrean jarrita
eskoba-makila,
bota nahiean bertso
on bat, borobila.
A, ze fallo pila!
Potoak bi mila!
Bat-baten, isila;
funditu bonbilla.
Atea itxi da ta,
nun da maratila?

3

Baina tarteka hartzen diot
bertsoari tamaina,
behatz puntekin ikutuaz
zortzi milako gaina,
begiak itxita, sentitu
oholtza usaina,
sentsazio hoberik
ezin, alajaina!
Hau bertso bikaina!
Andoni Egaña
txapeldunak haina
asmatu nahi, baina
ez naiz ni horren ona,
ez nadin engaina!

4

Nahiz ez degun inoiz hautsiko
txapeldunaren marka,
guri esker bertsolaritzak
borobiltzen du mapa.
Geureak bere eskasian
meritua dauka,
ez dadila sekula
umorerik falta,
guk segi matraka,
puntuka, koplaka,
binaka, bakarka...
nahiz ta sartu hanka,
bertso onena ez det
oraindik bota ta.

Doinua: Euskaldun berriaren balada

Kamuts

Kepa Maiz

Hasi nadin pixkanaka
arkatz kamutsa hartuta,
ideiak pilatu a(ha)la
aterako diot punta,
hitzak paperean itsats,
denak elkarrekin junta,
gogoan iltzaturiko
errima sorta apunta,
zeri idatzi nahi diot?
Egin dezadan gomuta...
zer motibo, zer arrazoi
komeni ote den hauta,
orri bat ez dedin gera
zurikeriz marraztuta,
azken puntu on bat baina
beste guztia a(ha)ztuta.

Flasback bat egin dezadan
noan nerabe aldira
dozena bat urterekin
liburu za(ha)rrei begira,
zentzu denak ipinita
Lete baten poesira,
nahiz askorik ulertu ez,
bista ezin erretira,
triste bizi zen Bilintx ta
Lasartetik Basarrira,
Otañorekin debalde
Ameriketatik bira,
Txirrita, Lazkao Txiki,
bakoitza bere neurrira,
bertsodependentziaren
errudunak izan dira.

Doinua: Baserrian jaio nintzen

Gaitzat har dezaket gure
alaba jaio berria,
proiektu baten ametsak
egiztatuz ekarria:
polit, eder, xalo, lirain
eta hain maitagarria,
lausengu denak sortzeko
emari den iturria,
baina berekin izan dut
bizipen kontrajarria,
esperotako bertsoen
ordez, lehor eztarria,
sendotuko zait gerora
barruko ahots larria,
jarraitzen badu izaten
nire doinu ta neurria.

Lehenengo puntuari
errimatzen dion hitza
aukeratu ta ipiniz,
zentzu on batekin mintza,
betoz neurrira 'haritza',
'pintza', 'bortitza' ta 'giltza',
baina guztiak alperrik
mami gabe bagabiltza,
parez pare ez al doaz
bertsoa eta bizitza?
Kantatu nahi dut bizia
ta bizi bertsolaritza,
jolas bezala hartzea
omen da lehen baldintza,
nahiago nuke niretzat
hori bakarrik balitza.

Doinua: Gure herri ttiki hau da

Bertso baten formatua
zait euskarri potentea,
esan nahi den hura neurritz
estutzen duen atea,
askatzen ditugun hitzez
josi nahi dugun katea,
lau t'erdiko kaiolako
garaipen errematea,
nahiz izan lau sasi-bertso
sortzeko borondatea,
behar dut akuilukada,
zasta nezan aldartea,
burua nola daukadan
ez da erraz jakitea:
ideiez hustua edo
kontraesanez betea.

'Sorta bat egitekotan,
ongi behar dik egina,
sikira kontzientzia
lasai uzteko adina',
puzten da barne egoa
pizten hobetzeko grina,
Besamotzak denak saldu
ditzazkeela imajina,
baina inkonformismoak
beti egiten du mina,
egoa hegaka doa
grina bihurtzen ezina,
nahiago nuke ezkorrak
inoiz izan ez bagina,
asmoa eta emaitza
sarri ez baita berdina.

Doinua: Larogeita hamar urteetan

Ebola gai posiblea
edo gerra mundiala,
maiteminak bihotzean
utzi ohi duen ezpala,
palestinarrak buruan
jaso dituen bi bala
edo txikotak Orion
ekarritako kresala,
mila gai ditut eskura,
aukera hain da zabala...
falta zait iritzirako
perspektiba naturala,
susmoa dut bertsoen hau
handi geratu zaidala,
ni neu gai naizen edo ez
denborak esan dezala.

Izan dira, nahiz saiatu
egoskor ta maitekiro,
palilloaren ondotik
pasa diren zortzi tiro,
hitz eta errima artean
eginak hiru suspiro,
idei gabezia eta
nora ez hutsa motibo,
sarri norbere lainotan
ez denez izaten giro,
barruko korapiloak
bilduko ditut astiro,
ta askatzeko beharra
sentitzen dudan aldiro
arkatz kamustu batekin
saiatuko naiz berriro.

Doinua: Norbere mundu intimo

Egunerokoak

Garazi Urretabizkaia

Goizero legez jaiki eta
plaza aldera naiz joan,
negu hotzeko hego haizeak
laguntzen gaitu gaurkoan,
jendea umore onez dabil
irriparrea ahoan,
Kutixin kafetxoa hartuta,
sartua naiz kioskoan,
egunkariak umore on bera
izango duelakoan.

Maribinetik atera eta
berriz etxera bidean
ohitura denez sofan eseri
egunkaria aldean.
Atzeko aldetik ireki eta
sorpresa begi aurrean:
Tele 5eko programa denak
ikusituz ditudanean:
Salvame ordez, dokumentala
dago gaur arratsaldean.

Orria pasa, kultura arloa
bertsolaritzaz beteta,
Euskal Herriko finala Baionan,
hau da jende pilaketa!
Buruz buruko azken fasean
ze emozio leherketa!
Ibai Esoain ta Lujanbio
ta puntutan berdinketa!
Baina, azkenean, Esoaintzat
txapela ta txapelketa.

Begiak gogor igurtzi ditut
aurrekoa ezin sinetsita,
kiroletara pasa naiz azkar,
pentsatzeari utzita:
oriotarrak berriz notizi,
primer planoan jarrita,
neskek bandera astintzen dute...
A, zer argazki polita!
Historian zehar lehenengo aldiz
La Concha irabazita.

Aurrera segi, ekonomian
krisiaren jaitsiera...
langabetuen kopuru altua
kolpean joan da behera.
Nazioartean Palestinako
konfliktuen akabera.
Euskal Herrian erreferenduma:
independentzia, aurrera!
Ta Erriberan nabarmen gora
euskara erabilera.

Orria pasa eta azkenean
notizi txarren atala...
Hainbeste gauza onen artean
honek behar zuen hala!
Eskeletara iritsi eta
ohartu naiz berehala:
hildakorik ez, jaioberriak
soilik azaltzen dirala!
Martxa honetan letu beharko dut
Jimi Hendrix piztu dala.

Egunkaria itxi dut eta
sakon-sakon dut arnastu,
informazio dosi altu hau
buru barnean zait nahastu...
Ezpain hertsitan irribarretxo
luze, zabal bat marraztu,
positibismo frenesi hontan
denbora nahi dut izoztu,
mundua zeinen ederra dugun
gutziz baititzaidan ahaztu.

Bat-batean ring, ring, ring eta ring,
iratzargailu txepela,
gutzia amets soil bat izan da,
ezin zitekeen bestela...
Ohetik jaiki eta kalera,
hego haizea, epela;
Kutixitik gaur etxera noa,
erabaki det horrela.
Gaurkoan behintzat pentsatu nahi dut
gutzia posible dela (bis)
bizitza polita dela.

Doinua: Itsasoari begira

Oporraldi desberdina

Rosi Lazkano

Oporraldi desberdina
det aurtengoan egina:
uxatu ditut autobus, kotxe
edo hegazkina;
lur, harri eta buztina,
gainean zeru urdina,
botan azpiko zuelak zuten
gasturik haundina.

Adi txorien kantura,
egunsentiko freskura.
Sei t'erdietan jeikitze hori
bihurtu ohitura,
bidearekin lotura,
bakarra nuen ardura:
begien bistan eramatea
gezi hori hura.

Izerdia eta hautsa
nekatu samar gorputza.
Halako baten, aterpetxeko
ateari bultza,
botak erantzi ta dutxa,
aurkitzen bazenun hutsa.
Hainbeste jende ze demontretan
gatozti honuntza!

Egindakoan, ze poza!
Etapas hasi eta osa.
Gauza txikiez konturatzeko
modu aproposa.
Ez *Aida*, ez *Salsa Rosa*,
makarroia ta arroza;
alderantzizko sentsazioa:
arantzan larrosa.

Pausoak pausa du Meka
zaudenean neka-neka,
eguzkilorez ta arta-soroz
norbaitek hau seta!
Bistan dan arte ordeka,
aspertzeraino tarteka,
azaldu zaizkit barruko mugak
neuzkanak gordeta.

Motxilan karga astuna
ez da biderik estuna.
Gauza gehiago ere badago
zapaltzen gaituna;
pentsamenduen ttunttuna
beti ez baita txukuna,
ateratzeko kapaz da degun
beldur ezkutuna.

Botak, makilak piluan,
literak zurrunbiluan,
baina ez zera asko estutzen
ordenan failuan;
kafesnea katiluan,
irriparra ispiluan
gustora dagonaren aztarnak
begien briluan.

Bertsoz bete det papera
argazkik ditut atera,
agur motxila, makila, bota
neke eta zera...
Ipuinaren amaiera,
mariskoa afaltzera,
kontraesana litzake-eta
trenean etxera.

Doinua: Aizak, bi, mutil mainontzi

Lehen eta orain

Jokin Zumeta

Gure lurraren bilakaeraz
gau asko esna egonak
azken mendeak ekarri ditu
oso aldaketa sakonak,
oso ezberdin bizi gerade
lehengo ta oraingo pertsonak,
lehengok ez ziren horren txarrak ta
orain ez gera hain onak.

Aiton-amonak kozkortu ziran
frankismoan itzalean,
eskolan hitz bat euskaraz egin,
erregelaz kaskarrean;
euskaraz ezin zuten hitz egin
besterik ez zekitenean,
orain euskeraz ahal dugu, baina
gaztelera mingainean.

Ta urrutiko intxaurrena ere
kontatuko dut segidan,
nola kanpoko gauzak batzuntzat
hobeak izaten diran.
Lehen produktuk, urrutienez,
Tolosaldekoak ziran,
elikagaien jatorria orain:
Turkia, Txina ta Iran.

Ohiko zuten bi kilo baba
koneju ordezk trukatzeara,
dirua jainko txiki bihurtu,
truketa pasa atzea.
Kontsumismoan erosi erloju,
galtzak, niki ta jertsea...
ohikoa da erosi, ipini,
aspertu ta botatzea.

Teknologia ere izan da
aldaketa asko egin:
GPS, internet, roomba robotak
ta 3D-ko imajina.
Martxa honetan ezarri baietz
burutik kable bat, fina,
zaila izango da bereizten zein dan
pertsona ta zein makina.

Animalien eboluzioa
bizirauten jarraitzera,
zalantzak ditut egokia dan
gizakion jokaera...
Anbizioak ez al garama
geure iparra galtzera?
Aurrerakuntzen garai honetan
ez ote goaz atzera?



Euskaraz
bizi-bizi

